



Alberto LADRÓN ARANA

Itzalaren baitan (Irun Hiria Saria), 2001,
Kutxa Gizarte-Ekintza

Xake mate (Agustín Zubikarai saria), 2001,
Elkar

Eguzki beltzaren sekretua, 2003, Elkar

Arotzaren eskuak, 2006, Elkar

Ahaztuen mendekua, 2009, Elkar

Alberto LADRÓN ARANA*

Desde tu condición de escritor euskaldun nacido y/o residente en Navarra, ¿cómo ves el panorama literario navarro en general y el euskaldun en particular? Háblanos de ello.

—A decir verdad, no puedo proporcionar una respuesta muy precisa sobre la literatura que se realiza en Navarra, ni en euskara ni tampoco en castellano. Como escritor y lector que soy, convivo con la literatura, pero vivo fuera del mundo de la literatura navarra. Por lo tanto, la opinión que puedo dar es la de un espectador distante.

La producción navarra no es muy extensa en cuanto a cantidad, eso es evidente. Sin embargo, en cuanto a la calidad, tengo la sensación de que el nivel medio es bueno. No obstante, como apuntaba antes, esto son solo creencias y sensaciones, existirán voces más cualificadas que la mía para hablar de este tema.

—¿Qué relación tienes con los escritores navarros euskaldunes (o euskaldunes navarros)?, ¿en qué se materializan estos vínculos?, ¿estáis asociados o contempláis esa vía, u otras más informales?

184

—La relación que mantengo con el resto de escritores navarros no es muy estrecha. Jon Alonso y Aingeru Epaltza me acompañaron en las presentaciones de mis dos novelas, pero a parte de esto, no mantengo ninguna relación con los escritores de mi entorno. Angel Erro, Iñaki Irisarri, Castillo Suarez... nos veíamos en los tiempos en los que me presentaba a los certámenes, pero he perdido su rastro.

De todos modos, mantengo la mejor relación que se puede tener: leo sus escritos y sus libros, no todos pero por lo menos algunos sí. A mi entender, esa puede ser la mayor unión que se puede tener con un escritor.

Respecto a las asociaciones de escritores, no suscitan un gran interés en mí. Sé que a más de una persona le parecerá sorprendente, da la sensación de que los escritores siempre se mueven con gente del mundo de la literatura. Pero al fin y al cabo, el trabajo del escritor es un trabajo solitario, y toma forma en la soledad. Tú y el ordenador —o la dichosa hoja en blanco— es lo único que se necesita para escribir, y en ese proceso no hay necesidad de ninguna organización o asociación.

Cuando el libro está escrito y comienza su andadura, normalmente son las editoriales las que se encargan de dar a conocer al mismo. Más allá del apoyo moral no sé qué ayuda pueden proporcionar esas asociaciones.

De cualquier modo, es positiva la existencia de esos foros para hacer llegar a la sociedad las preocupaciones y opiniones del sector.

* Traducción realizada por Pablo Azpiroz Iribas. Biblioteca Pública de Pamplona-San Jorge

Alberto LADRÓN ARANA

Nafarroan jaioa edota bizi zarela eta idazle euskalduna zaren aldetik, nola ikusten duzu egoera literarioa Nafarroan, bereziki euskarazkoa? Hitz egiguzu honetaz.

—Egia erran, ezin oso iritzi zehatzik eman Nafarroan egiten den literaturaz, ez euskaraz ezta gaztelaniaz ere. Idazle eta irakurlea naizen aldetik literaturarekin bizi naiz, baina Nafarroako literaturaren mundutik at bizi naiz. Eman dezakedan iritzia beraz, kanpotik eta urrundik ikusitakoa da.

Nafarroako ekoizpena ez da oso oparoa kopuruari dagokionez, hori begi-bistakoa da. Kalitate aldetik ordea, batez besteko maila nahiko ona delako sentipena dut. Baina, erran bezala, horiek usteak eta sentipenak besterik ez dira, nirea baino funts handiagoko ahotsak egonen dira horri buruz mintzatzeko.

—Zer-nolako harremanak dituzu idazle nafar euskaldunekin (edo euskaldun nafarrekin)?, zertan hezurramitzen dira lotura horiek?, elkarterik ba al duzue eratua edo eratzekobidean, ala bide informalagoak nahiago?

—Nafarroako gainerako idazleekin dudan harremana ez da oso hurbila. Jon Alonsok eta Aingeru Epaltzak nire bi nobelaren aurkezpenetan lagundu zidaten, baina horretaz aparte, harremanik batere ez dut inguruko idazleekin. Angel Erro, Inaki Irisarri, Castillo Suarez... lehiaketetara aurkezten nintzen garaian elkar ikusten genuen, baina haien arrastoa galdu dut.

Hala ere, izan daitekeen harremanik hoberena dut haiekin: haien idazki eta liburuak irakurtzen ditut, ez guzti-guztiak, baina batzuk bai behintzat. Nire ustez, idazle batekiko loturarik estuena izan daiteke hori.

Idazleen erakundeei dagokienez, ez didate interes handirik sortzen. Badakit baten bati harri-garria irudituko zaiola, badirudi idazleak beti literaturaren munduko jendeekin ibiltzen direla. Baina azken batean idazlearena lan bakartia da, eta bakardadean gauzatzen da. Zu eta orde-nagailua —edo zorioneko orri txuria— besterik ez da behar idazteko, eta prozesu horretan ez da inongo erakunde edo elkarteren beharrik.

Liburua idatzita dagoenean eta bere ibilbideari ekiten dionean, normalean argitaletxeak dira liburua zabaltzeko eta ezagutarazteko lana egiten dutenak. Sustapen moraletik at, ez dakit norainoko laguntza eman dezaketen halako elkarrekin.

Dena den, ona da halako biltokiak egotea, sektorearen kezka eta iritziak jendarteratzeko.

—Zein erakunderen babesak sentitzen duzue? Zeinena ez?

—Ez dut inongo erakunderen babesik sentitzen, ezta bilatu ere. Guztiz alferrikakoa litzateke Nafarroako herri erakundeen laguntza bilatzea. Gure lana kultura euskalduna izanik, zenbaki guztiak genituzke pikutara bidaliak izateko.

—¿Por qué instituciones te sientes respaldado? ¿Por cuáles no?

—No siento el apoyo de ninguna institución, ni tampoco lo busco. Sería totalmente inútil pretender la ayuda de las administraciones públicas de Navarra. Siendo nuestro trabajo parte de la cultura vasca, tendríamos todos los números para ser mandados al carajo.

Alguien podría pensar que esto es perjudicial y en cierta medida, lo es. Pero, al mismo tiempo, esa falta de ayudas tiene su parte positiva: el hecho de no tener contraída ninguna deuda con las instituciones oficiales te proporciona una libertad total para hacer, escribir y decir lo que quieras. No te dan nada, pero no les debes dar nada a cambio. Y esto es una gran cosa.

También es grande saber que todo lo que has conseguido no se lo debes a los favores de nadie. Hoy en día, el poder ir con la cabeza alta no está al alcance de todo el mundo.

—Cuando se organiza un congreso, o se hace una antología de escritores navarros y buscas en el índice y no estáis, ¿crees que ese olvido es político, sociológico o cultural?

—Ese olvido no es olvido, sino una estrategia muy bien calculada. Y por supuesto, no es ni sociológico ni cultural. Nuestra sociedad es plural, nuestra cultura también lo es. Pero esa gente no las quieren así. Cuando hablan de apertura y mestizaje se refieren al mestizaje con una cultura concreta —y próxima—. Quieren darle un aspecto natural y normal —palabras muy de su gusto— a esa exclusión, pero en realidad dejan fuera a una parte amplia de la sociedad.

186

Así pues, ese olvido no es sociológico, aunque pretendan dar esa impresión. Ese olvido es político, pensado por políticos, y también organizado y ejecutado por políticos.

Ese tipo de congresos y antologías suelen estar organizados por las administraciones públicas, o por asociaciones privadas subvencionadas con dinero público. Y esas instituciones llaman a la gente de su cuerda, introduciendo como mucho algún que otro “disidente” con el objeto de dar un poco de color y una imagen de “talante” abierto.

No importa si los autores convocados escriben libros de bricolaje (mejor, a ser posible), o si sus obras solo merecen la atención de sus parientes más próximos: son nuestros amigos, no son peligrosos, no morderán la mano que les da de comer. Al contrario, besan esa mano. Y eso es lo más importante.

Quid pro quo: les daremos un espacio en nuestro periódico, un certamen literario en nuestro ayuntamiento, una conferencia en nuestra caja de ahorros, cursos en nuestra universidad, una foto en esas revistas que supuestamente son gratuitas, una balda en nuestras bibliotecas. Lástima no poder darles algunos lectores. Pero bueno, el trabajo en pro de la cultura también tiene sus limitaciones.

—¿Quiénes son de la literatura euskaldun de estas latitudes los padres fundadores?, ¿y quiénes el presente y el próximo futuro?

—Dejando a un lado los curas y napartarras de buena voluntad de los siglos pasados, en mi opinión, actualmente los padrinos de la literatura escrita en euskara en Navarra son Jon Alonso y Aingeru Epaltza. Sin su obra, hoy en día no se podría entender la literatura navarra.

Baten batek pentsa lezake hau kaltegarria dela eta neurri batean, bada. Baina, bestalde, laguntza falta horrek bere alde ona ere badu: erakunde ofizialekin inolako zorrik ez izateak erabateko askatasuna ematen dizu nahi duzuna egin, idatzi eta errateko. Ez dizute deus ematen, baina ez diezu deus eman behar trukean. Eta hori gauza handia da.

Lortutako guztia inoren lagunkeriari zor ez diozula jakitea ere ederra da. Egun, burua harro eramatea ez dago guztien esku.

—Biltzar bat antolatzen denean, edo idazle nafarren antologia bat osatzen dutenean eta aurkibidea arakatu orduko jabetzen zaretenean bertan ez zaudetela, zure ustezpolitikoa, soziologikoa ala kulturala da ahanztura hori?

—Ahanztura hori ez da ahanztura, ongi pentsaturiko estrategia baizik. Eta jakina, ez da soziologikoa ez kulturala. Gure gizartea anitza da, gure kultura ere bai. Baina horiek ez dute halakorik nahi. Irekitasunaz eta mestizajeaz hitz egiten dutenean kultura jakin —eta hurbil— batekiko *mestizajeaz* ari dira. Itxura naturala eta normala —haien gustuko hitzak— eman nahi diote bazterkeria horri, baina egiaz gizartearen zati handi bat kanpoan uzten dute.

Ahanztura hori, beraz, ez da soziologikoa, haiek halako itxura eman nahi izan arren. Ahaztura hori politikoa da, politikariak pentsatua, antolatua eta gauzatua baita.

Halako biltzar eta antologiak herri erakundeek antolatzen dituzte normalean, edo diru publikoz sustaturiko elkarte pribatuek. Eta halako erakundeek beren sokako jendea deitzen dute, gehienez ere “disidenteren” bat edo beste sartuz kolore apur bat emateko eta *talante* irekia itxuratzeko.

Berdin da deitutako egile horiek bricolage liburuak idaztea (hobe, hala baldin bada), edo haien obrek ahaide hurbilen arreta besterik merezi ez izatea: adiskideak ditugu, ez dira arriskutsuak, ez diote kosk eginen jaten ematen dien eskuari. Aitzitik, muin egiten diote. Eta hori da inportanteena.

Quid pro quo: tokia emanen diegu gure egunkarian, lehiaketa bat gure udaletxean, hitzaldi bat gure aurrezki kutxan, ikastaroak gure unibertsitatean, argazki bat ustez doan banatzen diren aldizkari horietan, apal bat gure liburutegietan. Lastima irakurle batzuk ere eman ahal ez izatea. Baina tira, *kulturaren aldeko lanak* ere baditu bere mugak.

—Zeintzuk dira lurralde honetako euskarazko literaturaren gurasoak?, eta nortzuk oraina eta etorkizun hurbila?

—Aurreko mendeetako apaiz eta borondate oneko Napartarrak aparte utzita, nire ustez, gaur egungo Nafarroako euskarazko literaturaren aitapontekoak Jon Alonso eta Aingeru Epaltza dira. Haien lana gabe, ezin izanen zen gaur egungo literatura nafarra ulertu.

Gaur egun, nire ustez, Epaltza dugu idazlerik puntakoena. Haren liburuak hainbat hizkuntzataraz itzuli dituzte, sari garrantzitsuak jaso ditu, eta batez ere, obra sendoa du. Liburu onak idatzi ditu, entretenigarriak, sakonak, ongi idatziak. Eta horixe da idazle bati buruz erran daitekeen hoberena. Seguruenik beste tokiren batean jaio izan balitz, edo hobe, beste hizkuntza batez idatzi izan balu, haren liburuak mundu zabalean irakurriko lirarteke. Baina lasterrago edo beranduago, merezitako harrera izanen du, seguru nago.

En la actualidad, a mi parecer, Epaltza es nuestro puntal más consistente. Sus libros han sido traducidos a varios idiomas, ha obtenido premios importantes, y sobre todo, su obra es sólida. Ha escrito libros buenos, entretenidos, profundos, bien escritos. Y precisamente eso es lo mejor que se puede decir de un escritor. Con toda seguridad, si hubiese nacido en otro lugar, o mejor aún, si hubiese escrito en otro idioma, sus libros se leerían en todo el ancho mundo. Pero antes o después tendrá la acogida que se merece, estoy seguro.

—Escribir en lenguas minoritarias, ser parte de una minoría dentro de una minoría, ser leído. ¿Quiénes son tus lectores?, ¿quiénes querías que fueran?

—Poco puedo decir acerca de mis lectores, cómo son o de dónde proceden. Pero una cosa tengo clara: siempre me han dado sorpresas agradables. Cuando en 2002 publiqué *Xake Mate*, barruntaba que la novela iba a pasar totalmente desapercibida. No era humildad, tenía todos los números para ello: desconocido, principiante, sin ninguna promoción... *Xake Mate* va ya por la séptima edición. Asimismo, *Arotzaren eskuak*, novela que publiqué cuatro años después, ya va por la novena.

¿Quiénes son esos miles de lectores? No lo sé. Sí sé que todos no son adolescentes de bachiller que hayan sido obligados a leer. Sí sé que no les ha llevado a la tienda ninguna publicidad. Sí sé que muchos de ellos han superado grandes dificultades en el camino hasta llegar al último capítulo, y sí sé que volveremos a encontrarnos en ese mismo camino.

188

Además de eso, poco más sé. Pero me es suficiente.

—Dentro de los círculos euskaltzales a veces se comenta con orgullo que, en proporción al número de hablantes, el euskara cuenta con un alto ratio de escritores publicados, pero que sin embargo, estos son muy poco seguidos —con ciertas excepciones— por los lectores euskaldunes.

—Mucho escritor, poco lector. ¿Si fuera al revés sería mejor? De todos modos, lo más importante no es la cantidad, sino la calidad. Carecería de importancia si sólo hubiese cinco escritores en lengua vasca si estos fueran de gran calidad. Eso nos conduce al espinoso asunto de la calidad de nuestra producción literaria.

Siempre me ha parecido que este tema se ha observado con una gran falta de perspectiva.

Yo suelo leer muchos libros de autores americanos, y con frecuencia me sorprende comprobar que muchos de ellos son muy malos. Hazte a la idea: ese autor ha conseguido que su obra se publique en Estados Unidos, pero no solo eso. También ha logrado que el libro se traduzca al castellano. Y si lo ha traducido al castellano, seguramente el francés, el alemán, etc. no andarán muy lejos. ¿Quién no se ha preguntado alguna vez “cómo demonios ha conseguido ese publicar semejante engendro”?

Por lo tanto, el euskara no es la excepción, eso ocurre en todos los idiomas. Tenemos más próximo el euskara, y es natural escucharlo más en referencia a él. Además, no debemos olvidar que algunas personas se ganan el sueldo a cambio de inventar y escupir contra este idioma.

Hizkuntza gutxitu batez idaztea, gutxiengo baten gutxiengo baten parte izatea, irakurria izatea. Nortzuk dira zuen irakurleak?, nortzuk nahiko zenituzke izatea?

Ezer gutxi erran dezaket nire irakurleei buruz, nolakoak diren edo nongoak. Baina gauza bat garbi dut: beti ustekabe atseginak eman izan dizkidate. 2002an Xake Mate argitaratu nuenean, nobelatxoa guztiz oharkabean pasatuko zelakoan nengoan. Ez zen apalkeria, zenbaki guztiak nituen horretarako: ezezaguna, hasiberria, inongo publiziatetik gabea... Egun, Xake Mate 7. edizioan dago. Lau urte geroago argitaraturiko Arotzaren Eskuak berriz, 9.an.

Nortzuk dira milaka irakurle horiek? Ez dakit. Badakit denak ez direla irakurtzera beharturiko batxilergoko nerabeak. Badakit denak ez direla adiskide edo familiakoak. Badakit inolako publiziatek ez dituela dendaraino eraman. Badakit haietako askok oztopo handiak gainditu dituztela azken kapitulurainoko bidean, eta badakit bide horretan berriz eginen dugula topo elkarrekin.

Horretaz aparte, ezer gutxi dakit. Baina aski zait.

—Giro euskaltzaleetan noizbait esan izan da, harrotasun puntu batekin, euskal hiztunen kopurua zenbatekoa den kontuan hartuta, euskarak oso ratio onak agertzen dituela idazle argitaratuen kopuruari dagokionean; hala eta guztiz ere, esan ere egiten da oso jarraitzaile gutxi dituztela euskal irakurleen artean —salbuespenak albuespen—.

—Idazle asko, irakurle gutxi. Alderantziz izanen balitz, hobe? Dena den, garrantzitsuena ez da kopurua, kalitatea baizik. Ez luke axola bost idazle euskaldun bakarrik egoteak, boskote hori kalitate handikoa balitz. Horrek gure literatur ekoizpenaren kalitatearen kontu arantzatsura garamatza.

Kontu honi beti perspektiba falta handi batez begiratu zaiola iruditzen zait.

Nik amerikar idazleen liburu anitz irakurtzen ditut, eta askotan harritu egiten nau batzuk zein kaskarrak diren ikusteak. Pentsa: egile horrek lortu du bere obra argitaratzea Estatu Batuetan, baina ez hori bakarrik. Liburua gaztelaniara itzultzea ere lortu du. Eta gaztelaniara itzuli badu, seguruenik frantsesa, alemaniera eta abar ez dira urrun egonen. Nork ez dio behin edo behin bere buruari galdetu “nola arraio lortu du horrek izugarrikeria hau argitaratzea?”.

Beraz, euskara ez da albuespena, hizkuntza guztietan gertatzen da hori. Hurbilago dugu euskara, eta naturala da hari buruz gehiago entzutea. Gainera, hainbat jende soldata irabazten dute hizkuntza horren aurkakoak asmatu eta botatzearen truke. Ez dugu ahaztu behar.

—Orobat, zenbaitetan ere aditu izan da —behar bada sektorearen ustezko ahuldadeak bultzaturik—, kritikak ez duela jarduten bete-betean, baizik eta nobedadeei publizitatea egiteari soilik ekiten diola. Ados zaude halako baieztapenekin?

—Egia erran, ez dut kritika *profesionalik* irakurtzen, ez euskal libururenak ez inongorenak. Ez da beldurra edo mendeku kontua. Arrazoa da kritika horiek ezer gutxirako balio didatela.

Liburuak aukeratzeko, irakurleek interneten eginiko kritikak hartzen ditut gidari. Ez da harritzekoa haien aholkuak profesionalenak baino baliagarriagoak izatea. Azken batean, haiek ira-

—**Asimismo, también algunas personas son de la opinión de que, quizá motivados por la supuesta debilidad del sector, la crítica no ejerce como tal, sino como meros altavoces publicitarios de las novedades. ¿Qué te parecen estas afirmaciones?**

—Si soy sincero, no leo críticas profesionales, ni de libros vascos ni de otras lenguas. No se trata ni de miedo ni de venganza. La razón es que esas críticas no me sirven de mucho.

Para elegir libros, me guío por las críticas que vierten los lectores en Internet. No debe extrañar que sus consejos resulten más valiosos que los de los profesionales. Si a ellos les ha gustado un libro, existe una posibilidad alta de que a mí también me guste. Algo que no se puede decir de las críticas profesionales. No tengo prácticamente nada en común con aquellos que estiman que más allá de Faulkner todo es basura.

¿Que no se practica la crítica rigurosa en la literatura en euskara? ¿Que existen amiguismos? ¿Y qué? ¿Cuánta gente lee los artículos de los críticos? ¿Y de los que los leen, cuántos se acuerdan de ellos a la hora de comprar un libro?

La publicidad y el boca a boca son los verdaderos guías de los lectores. Por consiguiente, el debate sobre la crítica me resulta totalmente inútil.

—**La traducción al español de tus obras, ¿te interesa? ¿es difícil conseguirlo? Cuando se realiza, ¿funciona? Además de la traducción, otros interruptores pueden alumbrar o no vuestra ganbara, librerías, las editoriales grandes y pequeñas, los premios, las ferias, la universidad... ¿Cómo de cerca estás de todo esto?, ¿cómo de cómodo?**

190

—Únicamente en una ocasión lo intenté con la traducción, pero al no recibir respuesta, me rendí y no lo he intentado de nuevo. Quizá no mostré mucho interés. Por ello, no puedo constatar qué difusión consigue un libro en esas ocasiones. Por descontado que todo autor desea la máxima propagación posible de sus libros. Nadie escribe por el mero placer de escribir. De otro modo, al finalizar la novela la guardaríamos en el cajón, no la llevaríamos corriendo a la editorial. El llegar a los lectores es el objetivo *siempre*.

Por ese lado, la traducción trae consigo una ampliación de los horizontes, y eso es bueno.

Otro cantar es luego el recorrido que tiene el libro traducido. Igual que siempre, sin promoción, el libro quedará en los almacenes de la librería, ya esté en castellano o en alemán.

Las librerías, las ferias y demás son interesantes para sus dueños, no tanto para los escritores. Jamás he ido a Durango, como lector prefiero elegir relajadamente los libros que voy a comprar, y no andar en medio de una avalancha humana. Tampoco he acudido nunca como escritor a esos acontecimientos. Me parece puro fetichismo el firmar libros.

En lo que respecta a los premios, opino que son muy interesantes, sobre todo para los principiantes. Da mucha fuerza el que lo que tú has escrito sea merecedor de un premio. Yo comencé de ese modo y guardo unos muy buenos recuerdos de aquellos tiempos. Se lo recomendaría a todas las personas que empiezan a escribir.

—**Otra fuente de iluminación posible: los medios de comunicación, ¿se acuerdan de vosotros?**

kurle *normalak* dira, ni bezalakoak. Haiei liburu bat gustatu bazaie, niri ere gustatzeko posibilitate handiak daude. Ezin gauza bera erran kritikari profesionali buruz. Ezer gutxi dut nik komun Faulkner ez beste guztia zaborra dela pentsatzen duten horiekin.

Kritika zorrotzik ez dagoela euskal literaturan? Adiskidekeriak egoten direla? Eta zer? Nori axola zaio? Zenbat jende irakurtzen ditu kritikarien artikulak? Eta irakurtzen dituztenetik, zenbat oroitzen dira haietaz liburu bat erosterakoan?

Publizitatea eta ahoz ahoko aholkuak dira irakurleen benetako gidariak. Beraz, guztiz alferrikakoa iruditzen zait kritikari buruzko eztabaida.

—Zure lanak espainierara itzultzea, interesatzen zaizu? Zaila da lortzea? Egiten denean, funtzionatzen du? Itzulpengintzaz gain, badira beste etengailu batzuk zuen sabaia argiztatzeko ahal dutenak ala ez. Hortxe ditugu liburu-dendak, argitaletxe handiak zein txikiak, sariak, azokak, unibertsitatea..., honetatik guztietatik hurbil ala urruti zabiltzate?, eroso ala deseroso?

—Behin bakarrik saiatu nintzen itzulpenarekin, baina erantzunik ezean, amore eman eta ez nintzen berriz saiatu. Beharbada ez nuen interes handiegirik azaldu. Beraz, ezin erran nolako zabalpena lortzen duen liburu batek halakoetan. Jakina, egile guztiek beren liburuen hedapen ahalik eta handiena nahi dute. Inork ez du idazten idaztearen plazer hutsaz. Bestela, nobela amaitutakoan tiraderan gordeko genuke, ez genuke argitaletxera korrika eramanez. Irakurleengana iristea da helburua *beti*.

Alde horretatik, mugak zabaltzea dakar itzulpenak, eta hori ona da.

Beste kontu bat da itzultako liburuak gero duen ibilbidea. *Beti* bezala, promoziorik ezean, liburuak liburu-dendetako biltegiak geldituko da, gaztelaniaz zein alemanieraz.

Liburu-dendak, azokak eta abar interesgarriak dira haien jabeentzat, ez hainbeste idazleentzat. Sekula ez naiz Durangokora joan, irakurle gisa nahiago izaten dut lasai-lasai aurkeratzea erosi behar ditudan liburuak, ez jende olde baten erdian ibiltzea. Idazle gisa ere inoiz ez naiz joan halakoetara. Fetitxismo hutsa iruditzen zait liburuak sinatzea.

Sariei dagokienez, oso interesgarriak iruditzen zaizkit, batez ere hasiberrientzat. Kemen handia ematen du zuk idatzitakoak saria merezi izateak. Ni bide horretatik hasi nitzen eta oso oroitzen ederrak ditut garai hartatik. Idazten hasten diren guztiei gomendatuko nieke.

—Balizko beste argi-iturri bat: komunikabideak, ba al dute zuen berririk?

—Idazle batzuen berririk bai behintzat. Askotan galdetu izan diot neure buruari zer nolako irizpideak erabiltzen dituzten komunikabideek idazleak beren orrialde-mikrofono-kameretara eramateko. Jakina, egile batzuek beste batzuek baino joko handiagoa ematen dute, grazia handiagoa dute, zer erran gehiago eta abar.

Hurbiltasuna izan daiteke beste irizpide bat. Azken batean, kazetariak gizakiak dira, lanean ari diren gizakiak, ez dute zertan garunak urtu idazle ezohiko edo urrunen bila. Betikoak deitu eta kitto.

—Al menos de algunos sí. Muchas veces me he preguntado qué criterios utilizan los medios de comunicación a la hora de llevar escritores a sus páginas-micrófonos-cámaras. Sin lugar a dudas, unos autores dan más juego que otros, tienen más gracia, tienen más que decir, etc.

La proximidad puede ser otro criterio. Al fin y al cabo, los periodistas son personas, personas que están trabajando, no tienen por qué devanarse los sesos buscando escritores no habituales o lejanos. Se llama a los de siempre y punto.

También están los criterios políticos: llamaremos a los “nuestros”.

Los gustos de la gente que lee en euskara, en cambio, no se suelen tener en cuenta. Aunque sea increíble, cuando quiera encontramos en los medios autores de libros de poesía intragable. En las radios, de tanto oírlos, se nos llegan a hacer familiares las voces de pesados profesionales que difícilmente agotarán sus primeras ediciones. Alucinante.

—¿Consideras las bibliotecas públicas un buen hospedaje?, ¿conoces tu presencia en la colección de las bibliotecas —públicas, universitarias—?, ¿te ves respaldado en ese sentido? ¿Temes que los recortes en las partidas para adquisiciones de libros afecten a la literatura euskaldun?

—Las bibliotecas públicas hacen un gran papel. En tiempos yo fui un usuario empedernido. Sin embargo, desde que empecé a comprar los libros me alejé de las bibliotecas. Pero desde siempre me han parecido unos lugares maravillosos.

192 Por su parte, no temo la disminución de las partidas presupuestarias. No creo que las compras que se han venido realizando hasta ahora hayan sido muy cuantiosas (de parte de las administraciones públicas, quiero decir). No notaré gran diferencia. Los que han vivido de las ayudas oficiales y del amiguismo, por el contrario, tendrán motivos mayores para estar temerosos.

Una ventaja más de vivir arrinconado.

—¿Qué te gusta leer? Danos 5 títulos que consideres imprescindibles.

—Estos últimos años he estado leyendo novela negra principalmente, pero la fantástica me ha gustado desde siempre. He aquí unos títulos que me han venido a la cabeza: *Aurpegirik gabe-ko hiltzaileak*, H. Mankell, *Ilunbeen bihotzean*, J. Conrad, *Odol hotzean*, T. Capote, *Dune*, F. Herbert. Ian Rankin, James Ellroy, Harlan Coben, Thomas Harris, Stephen King, Jean-Christophe Grangé... con esos jamás fallaréis.

Irizpide politikoak ere badaude: gure sokakoak deituko ditugu.

Euskal irakurleen gustuak, ordea, ez ohi dira kontuan hartzen. Harrigarria bada ere, poesia liburu irakurgaitzen egileak noiznahi aurkitzen ditugu komunikabideetan. Lehen edizioa nekez agortuko duten txapista profesionalen ahotsak ezagunak gertatzen zaizkigu, irratietan entzutearen entzutez. Harrigarria.

**—Biblioteka publikoena ostatu ona iruditzen zaizu? Biblioteken funtsetan duzun presentzia-
ren gainean zaude —kasu, biblioteka esaten dugunean mota guztietako liburutegiez ari gare-
la: publikoez, unibertsitateetakoez—?, Beraingandiko sostengua sentitzen duzue?
Liburutegiak hornitzeko diru-partiden murrizketek direla eta, beldur zara euskarazko litera-
turaren kalte izanen dela?**

—Liburtegi publikoek paper handia betetzen dute. Ni erabiltzaile amorratua izan nintzen garai batean. Hala ere, liburuak erosten hasia nintzenetik liburutegietatik urrundu nintzen. Baina oso toki ederrak iruditu zaizkit betidanik.

Bestalde, diru murrizketen beldur handirik ez dut. Ez dut uste orain arteko erosketak oso handiak izanen zirenik (herri erakundeen aldetik, erran nahi dut). Ez dut alde handirik nabaritu-ko. Erakundeen laguntzetatik eta lagunkeriatik bizi izan direnek, ordea, beldur izateko arrazoi handiagoak izanen dituzte.

Zokoraturik bizi izateko beste abantaila bat.

**—Zer duzu gogoko irakurtzeko? Eman ieazkiguzu behar-beharrezko bost izenbu-
ru**

193

—Azken urteotan nobela beltza irakurri izan dut gehienbat, baina fantasia betidanik izan dut gustuko. Hona bururatu zaizkidan titulu batzuk: *Aurpegirik gabeko hiltzaileak*, H. Mankell, *Ilunbeen bihotzean*, J. Conrad, *Odol hotzean*, T. Capote, *Dune*, F. Herbert. Ian Rankin, James Ellroy, Harlan Coben, Thomas Harris, Stephen King, Jean-Christophe Grangé... horiekin sekula ez duzue huts egingen.